

ZABALARRA

HEZKUNTZA PROIEKTUA

*Gure eskolako Hezkuntza proiektu honen **ardatza ikasleak** dira eta eskola elkarte osorako hazkunde proiektua izan nahi du.*

Eskolak azken helmuga gisa **ikasleen garapen integrala** eta osoa bilatu nahi du: **emozionala, soziala eta kognitiboa**.

*Ikasleak dituen **ahalmen guztiak garatu** nahi ditugu, bizitzaren eremu guztietarako hezteko.*

BALIOAK

Eskola bat izanik **ikasleak dira gure proiektuaren ardatza.**

Gure proiektuaren oinarrian **balio** hauek daude:

errespetua,

askatasuna,

elkarkidetzaz,

esfortzua,

konpromisoa

konfiantza.

→ *Eskola proiektu honekin konprometituta dauden irakasleak, ikasleak, gurasoak eta langileak Hezkuntza komunitate bat osatzen dugu.*

IDENTITATEA

Zabalarra, eskola publikoa eta euskalduna da:

- **Euskalduna** izanik, euskara eta euskal kultura bultzatu eta ikasleak euskalduntzeaz gain , euskara beraren normalizazioa bilatzen dugu.
- **Publikoa** den heinean eta **aniztasunaren ardatzetik** abiatuak, ezelango diskriminazio barik, aukera berdinak eskaintzen dituen eskola **konpentsatzailea, inklusiboa eta akonfesionala** gara eta **parekidetasun irizpideekin** bat egiten dugu.
- Azkenik, eguneroko errealitatean murgilduta bizi den eskola bat nahi dugu, **berritzailea, gaurkotua eta inguruaren jasangarritasunarekin konprometitua** izango den eskola.

HELBURU PERTSONALAK

GARAPEN EMOZIONALA

Jarrera aktibo eta eraikitzailea garatu, autokonfiantza eta oreka emozionalean oinarrituz.

GARAPEN SOZIALA

Elkarrekin bizitzen ikasi, besteekiko harremanak disfrutatu eta talde lana egiteko gaitasuna garatu.

GARAPEN KOGNITIBOA

Ikasten eta pentsatzen ikasi; ikasitakoa erabiltzeko eta etengabe ikasteko gaitasuna garatu.

HEZKUNTZAKO HELBURUAK

Gure ildo metodologikoa lau zutabe hauetan oinarrituko da:

1. Ikasleen aurre ezagutzak eta interesak abiapuntutzat hartzea.
2. Ikasketa esanguratsuak eraikitzea autonomiari bidea emanaz.
3. Ikasleen izaera kritikoa garatzea euren arlo sortzaile eta intelektuala sustatuz.
4. Irakaslearen rola dinamizatzailea, bideratzailea eta hurbila izatea bidean gidari lana eginez.

Irakas-taldeak

- *Irakasleen arteko talde lanak ezinbesteko garrantzia du programazioak osatzeko, ikasleen jarraipena egiteko, eguneroko funtzionamendua aurrera eramateko eta eskolaren proiektuak burutzeko.*
- *Irakasleon formazioa ohiko bileretan parte hartuz gauzatzen joango da. Erronka berriei aurre egiteko behar diren formazio egiturak antolatuz.*

HIZKUNTZAREN TRATAERA

Eskolako komunikazio hizkuntza euskara izango da.

- 1.** Ikasleak komunikazio egoera errealetan jarriko ditugu hizkuntzaren erabilgarritasun eta funtzionaltasunaz jabetu daitezen.
- 2.** Euskeraren erabilera eta normalkuntza ardatza izango da pedagogia, metodologia eta antolaketa arloan hartzen diren erabakietan.
- 3.** Etapa amaieran, ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menderatzea eta atzerriko hizkuntza bat (ingelesa) ulertu eta hitz egiteko oinarrizko maila lortzea bilatuko dugu.
- 4.** Gurasoengan euskararekiko motibazioa landuko dugu.
- 5.** Hezkuntza komunitateko partaide guztien arteko hizkuntza euskara izango da: (jangela, kirola eta eskolaz kanpoko ekintzak).
- 6.** Euskararen zabalkuntza eta normalizazioa sendotzen duten jarduera guztietan parte hartuko dugu.
- 7.** Ikastetxe, erakunde eta Administrazioaren arteko harremanak euskaraz izango dira .
- 8.** Euskal kulturarekin lotutako jarduerak bultzatuko ditugu eta beraietan parte hartzera animatuko ditugu eskola komunitateteko partaide guztiak.

TUTORETZA

Konfiantza eta ziurtasuna eman:

Irakasleak, ikasle bakoitza ezagutu behar du eta berengan konfiantza jarri: ikasle guztiei jomuga zabalak eta aukera handiak dituztela transmitituko die, ikasteko gai direla sentiaraziz eta ziurtasuna emanaz.

Prozesuan lagundu:

Irakasleek, ikasleek dakitena eta ikasi behar dutena kontuan hartuta, prozesu osoan estimulu eta laguntza emango die, prozesu berak duen garrantzia kontuan harturik.

Aprendizaia autonomoa bultzatu:

Jakin mina sortaraziz eta jarrera aktiboa garatuz.

ANIZTASUNAREN TRATAERA

Desberdinak gara ikasteko gaitasunetan, interesetan , motibazioetan , giza – balore, jarrera eta portaeretan, kultur eta erlijio sinesmenetan, ezaugarri eta gaitasun fisikoetan... eta guztiak hartzen ditugu komunitatearen aberastasun gisa.

Ikasle bakoitzak **eskubidea du era librean bizitzeko eta garatzeko**; bere ezaugarri fisiko, sozial, emozional, kultural sexual eta ekonomikoak errespetatuak izateko eta faktore diskriminatzaileak ez izateko.

Desberdintasunaren maila eta izaera edozein izanik ere, **behar izan espezifikoak dituzten ikasleen integrazioa** zentzu guztietan bermatu behar dugu.

Genero berdintasunaren aldeko jarrerak eta portaerak bultzatuko ditugu.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa **banakakoa** , **jarraitua** eta **orokorra** izango da .

Prozesua kontuan izango du ikaslea bere orokortasunean baloratuz:
(nortasuna, harremanak eta jakintza arloak).


Ikasleen ebaluazioak **jarrerari eta esfortzuari garrantzia** emango dio eta ikasleak curriculumeko arlo guztietan egindako aurrerapenari erreparatuko dio.

Jarduera planek **ziklorako adostutako minimoak menperatzea eta oinarrizko konpetentziak berenganatzea** bilatuko dute.

Ebaluazioak bi funtzio izango ditu , ikaslearen apendizai prozesuaz informazioa ematea eta , irakaslearen esku harmena aztertzea.

- *Ebaluazioaren erreferentzia nagusiak diren ebaluazio irizpideak ikastetxearen curriculum-proiektuan eta programazio didaktikoetan zehaztuta egongo dira.*

ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA



Organo desberdinen funtzioak eta betebeharra A.J.A.n jasota eta zehaztuta daude.

ELKARBIZITZA

ELKARBIZITZA BEHATOKIA

SEKTORE EZBERDINETAKO ORDEZKARIAK:

- Eskolazaina
- Jantokiko langileak
 - Gurasoak
 - Irakasleak
- Zuzendaritza
- Aholkularia

- Lehen Hezkuntzako ikasleen delegatuak
 - Irakasleak
 - Zuzendaria
 - Aholkularia

ELKARBIZITZA PLANA